

IL AZALPEN PROBA • <i>Bilbao-New York-Bilbao</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

*Hendaiara abiatu aurretik Ricardo gaztea, Juan Luis anaia eta gurasoak Igeldoko parkera joan ziren. Hantxe igaro zituzten momentu atseginak Atotxako tren geltokian elkar agurtu baino lehen. Pena handia hartu zuen Ricardok eta halaxe jarri zuen egunkarian.*

*Geuk ere ohitura genuen Igeldora joateko txikitan, aita itsasotik zetorrenean. Behin, batel txikietan sartu ginen eta aita guri arraunean irakasten saiatu zen. Halako batean, han ondoan zegoen gizon bar aitarengana hurbildu eta galdetu zion: "Zu ez zara ba Jose Uribe izango?"*

*Aita aho bete hortz geratu zen, gizon hura ez baitzuen bizian ikusi. "Ahotsagatik ezagutu zaitut" esan zion gizon hark, "ni neu ere lemazaina naiz eta zure ahotsa ezagutu dut itsasoko irratitik". Ohitura zuten arrantza-ontzietan irratia piztu eta entzuteko gainontzeko lemazainek zer zioten, jakiteko arrantza non zegoen.*

*Ricardoren egunerokoa jarri ditut berriz begiak.*

Ekainak 4

Parisen gaude. Napoleonen hilobia ikusi dut, gerra handiko panorama ikusgarri bat, eta beste gauza asko ikusi ondoren aitarekin igo naiz Eiffel dorreko hirugarren solairura. Handik bista ederra dago baina beldurra ematen zidan behera begiratzeak. Paperezko aireplano bat bota dut dorre puntatik.

*Beiraketik begiratu dut berriz ere. Maletak gurditxoetan datoz, Gero, arranpa mekaniko batzuekin hegazkin barrura sartzen dituzte. Neurea bilatu dut ehunka maletaren artean. Ezinezkoa.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Bilbao-New York-Bilbao</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

*Gabon, Fred naiz, naturalista, eta gauza bat entzun dezazuen nahiko nuke. Hori esan eta CD bat jarri zuen musika-ekipoan. Txorien kantak ziren, txio-txio-txio, txoriak.*

*“Zenbat hegazti mota daudela uste duzue?” galdetu zigun gero. “Bat edo bi” esan zuen bata, “hiru-laa” besteak. “Ba, ez” esan zuen Fredek, “hogei kantu mota daude, hogeitxori ezberdin batera kantatzen”. Eta txoriena, egin berri genuen errezitalarekin lotu zuen. “Zuek entzunda, ematen zuen txoriak zinetela kantari. Nik berrogei urtez entzun izan ditut txoriak basoan. Ez nuen ulertzen haien kantua baina banekien zer sentitzen zuten. Banekien noiz ziren hotz edo gose. banekien noiz zeuden gaitzen batek jota edo maiteminez. Nik neuk zuen hitzak banan-banan ulertu ez ditudan arren, badakit zer esan nahi zenidaten. Hala eta guztiz ere, zuok zeuek ez zarete kapazak izan txori batzuen kantak bereizteko. Gainera zeudenak bakarrik entzun dituzue, ozenenak bakarrik”.*

*Kanpora atera nintzen. Goizeko ordu txikiak ziren baina artean ez zuen guztiz ilundu. Marra gorritzat bat ikusten zen hodeiertzean. Loak hartu nahi ez duen haur baten begia. Fred hurreratu zitzaidan eta zeruari begira jarri zen hura ere. Begirada hodeiertzetik kendu gabe esan nion ederra izan zela txoriena. Lezio bat eman zigula.*

*“Ez da izan lezioa. Munduaren erdiak ez daki beste erdiaren berri”, segitu zuen naturalistak ortzemugari begira. “Neure bizitzako berrogei urte eman ditut txoriak entzuten, badakit txorien kantuei buruz jakin beharreko guztia. Baina ni neu ez naiz kantatzeko gauza. Ez dut sekula lerro bakar bat idatzi. Nik neuk poeta izan nahi nuen baina ezin izan dut sekula idatzi, beldurrak gehiago egin dit”.*

*Estoniako basoetan entzun nuen azken aldiz kukua. Gure herriko uste zaharra da kukua lehen aldiz entzutean txanponak badituzu patrikan, urte osoan izango duzula dirua.*

*Nik orduan ez nuen txanponik patrikan, baina galtzak poemaz beterik ekarri nituen.*